

AMETSEN BILA

Bazen behin Ane izeneko neska, argal, altu, begi urdindun eta ilehori bat. Anek igeri egitea zuen gustuko. Bere familia premia gorrian bizi zen. Errendi ezina zen eta indartsua. 25 urte zituen eta Mexican bizi zen. Bere familiak ez zuen janari nahikoa eta Anek igerian irabazten zuen diruarekin egiten zuten aurrera. Egun batzuk geroago mugikorretik deitu zuten Euskal Herrira etorri behar zela igeri egitera esanaz bestela, bere familiari etxea kenduko ziotela.

Hilabete bat geroago, Euskal Herrira hurbiltzen hasi zen. Euskal Herrian bere ametsa lortzeko leku bakarra zen, aukera ematen ziotena, bera beltzarana zelako.

Berehala etxetik irten zen eta 10 ordu egin zituen berak bakarrik bere familia gabe. Ez zekien zer gertatuko zen heltzerakoan, buruan bakarrik bere ametsa betetzea zuen, mundu osoa igerian zeharkatzea 100 egun baino gutxiagotan.

Euskal Herrira heldu eta ordutik aurrera han eman zioten etxera joan zen lo egitera. Hurrengo egunean egun luze bat zuelako entrenatzen.

Hurrengo egunean entrnatzaleekin hitz egitera joan zen:

- Kaixo zer moduz? -esan zuen entrenatzaileak.
- Kaixo oso ondo. Zenbat urte ditugu ametsa prestatzeko?
- 2 urte gutxi gorabera, has dadila! -esan zuen entrenatzaileak.

2 urte egon ziren prestatzen eta irailean hasi egin ziren mundua zeharkatzen. Anek lehenengoan lortzea espero zuen ametsa eta hasi egin zen.

Egun osoa igerian zerman, gutxi gorabera 24 ordu. Ordu batzuk geroago, mugimendu arraro bat entzun zuen itsaso azpian. Bere ondoan itsasontzi bat zihoan zerbait gertatzen baldin bazitzaion. Konturatu ziren marrazoak zirela, kaiola batean zegoen Ane baina marrazo gehiegi zeuden eta ez zuen ezer ikusten eta itsasotik atera egin behar izan zen. Oso gaizki sentitzen zen. 2 urte egon zelako prestatzen eta orain beste 2 urte egon behako zelako.

Handik 4 urtetara berriro saiatu zen ametsa lortzen eta oraingoan aurrerago heldu zen, 60 ordu egin zituen igerian. Itsaso aurrera begiratu eta han ikusi zuen itsaso guztia marmokaz beteta zegoela baina aurrera jarraitu zuen. 70 ordu zihoan igerian eta ezin zuen gehiago, ez zuen gorputza sentitzen eta gelditu egin zen.

Bide luzea egin eta gero igeri egiteari utzi zuen 4 urte, baina aurrera segitu behar zuen bere familiarengatik.

Azkenengo aukera zuen, oraingoan, ez zelako lehen bezalako gaztea, orain

33 urte zituen, baina azken bidaiarekin hasi zen.

3 egun igerian egin zituen 180 ordu. Ez zitzaion asko geratzen proba bukatzeko, kantzatuta zegoen baina aurrera segitzen zuen bere familiarengatik. Azken orduak geratzen zitzaion bere familiak dirua edukitzeko.

Aurrera segitu eta Euskal Herrira ikusten zuen, oso pozik jarri zen. Bere familiaren arazo guztiak konpondu egingo zirelako. Proba bukatu eta diru nahikoa edukiko zuten etxea ordaintzeko. Heltzear zegoenean, bere familia ikusi zuen hondartzan bera animatzen.

Haiek bakarrik ez ziren animatzen zeudenak, beste Euskal Herriko pertsona guztiak ere han zeuden oihuka:

- Ane! Ane!

Aneri eman zizkioten animoen esker jarraitzen zuen aurrera. Lurra ikutu eta bidai luze honen guztiaz gogoratu zen. Hura ez zegoen pozik proba gainditzea lortu egin zuelako, baizik eta bere familiak janari nahikoa edukiko zuelako betirako.

Bere familiakoak oso pozik zeuden berataz, eta hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila itsaso azpian.

Ura